

# HEZKUNTZAN BERARIAZ SENDOTZEKO PROIEKTUA

## 1. IKASLEAK

DBHko 2. mailan matrikulatutako ikasleentzat antolatutako proiektua da eta honako baldintza hauek betetzen dituzten ikasleei zuzenduta dago:

- eskolan atzerapen handia izatea, batez ere arlo instrumentaletan, eta atzerapen hori gizarte-egoera kaltetuetan egotearekin loturik egotea.
- eskolara egokitzeko arazoak izatea eta sarritan ikasketetan atzeratuta ibiltzea.

Proposamena gelako irakasle talde guztiak egingo du orientazio departamentuaren laguntzarekin eta ondorengo aldagaiak hartuko ditu kontuan:

Ikasleak oinarrizko trebetasun instrumentaletan zailtasunak izatea:

- Irakurketan: mekanika, abiadura eta ulermena.
- Idazketan: ortografia, adierazpena eta hitz-elkarketa.
- Matematikan: buru-kalkulua, zenbaki sistema, eragiketa matematikoak eta buruketen ebazpena.

2. Azalpenen beharra/irakaslearen denbora osagarria.

3. Euskararen oinarrizko ezjakintasuna.

4. Gizarte-afektibitate zailtasunak eta beharrak.

## 2. ANTOLAKETA

Antolaketaren helburua ikasle horiei arreta pertsonalizatua ematea da, honako neurri hauetan oinarrituta: plan pertsonalizatuak, banako tutoretzak, egoera berean dauden ikasleekin egindako tutoretzak, pedagogia-kontratuak, aurre hartzeko sendotze-lanak ...

Bi irakaslek ardura hartuko dute, batek Hizkuntza-Gizarte esparrua eta esparru Zientifiko-Matematika bestek.

Esparruka antolatzeko arrazoiak hauek dira:

- a) Bi arloen edukiak lotuta eta modu bateratuan lantzeko aukera ematen du.
- b) Irakasle kopurua gutxitu egingo zaie ikasleei eta bi irakasle hauek askoz ordu gehiago egongo dira beraiekin, ondorioz ikasleen dispersioa gutxituko da eta irakasleek gehiago ezagutuko dituzte.

- c) Esparruak bi orduko saioa jarraian antolatzeke aukera ematen duenez, ikasleak egunean 3-4 lan mota eta klase aldaketa izango ditu eta ez 6-7, arloekin gertatzen den bezala. Honek ikasle hauek gehiago zentratzea eta lasaitasun eta sakontasun gehiagorekin lan egitea ahalbideratzen du.
- d) Ikaslea erreferentzi taldean dagoenean, arloan sortzen zaizkion oinarrizko beharrak eta zailtasunak esparruan bideratzea errazten du.

Esparruetan lanean aritzetik arloetan lana egin ahal izateko baliabideak lortzea ere helburu bat izango litzateke, honek 3. mailan talde arrunta batean sartzeko aukera zabaltzen diolako.

Etapako xedeak eta helburu orokorrak mantentzea izango da proiektu honen ardatz nagusietako bat. Horregatik bi ikasturte burutu ondoren ikasleak esparrutik lortu behar dituzten helburu eta gutxieneko edukiak institutuak 1go ziklorako dituenak izango dira.

### **3. METODOLOGIA**

Ikasle hauek ikaste prozesuan izan dituzten zailtasunak ikusirik, lan esanguratsua eta arrakastatsu batean aritzeko metodologia jarraitu da. Oinarrizko trebetasunak lantzeko jarduera aktibo eta partehartzailea behar dute ikasle hauek, funtzionala eta beren errealitatearekin lotua. Garrantzitsuak direla ohartarazi behar zaie eta itxaropen eta aukera positiboak izaten lagundu. Guzti hau lortzeko, metodologiaren ildo nagusiak hauek dira:

- a) Ikasle bakoitzaren beharretara egokitzea; hau gauzatzeko ebaluazio etengabea oinarrizko tresna izango da.
- b) Edukiak oinarrizkoak eta funtsezkoak lantzea, aurretik dituzten ezagutzekin lotuz. Honekin batera, trebetasun instrumentala lortzeko banakako jarduera mekanizatuak ere egunerokotasunean txertatuko dira.
- c) Edukiak erakargarriak izan daitezken moduan osatuko dira unitate eta proiektuak: laborategiko esperientziak, irteerak, pil-pilean dauden berri eta albisteak,...
- d) Ikasleen jarraipen zuzena: agendaren erabilena, lanaren zuzenketa, materialaren behaketa, lanaren antolaketa ... irakasleen etengabeko jarduera izango da.
- e) Elkarlanean aritu beharko duten jarduerak ere oinarrizko lana izango da.
- f) Saiatuz, arrakasta izan dezaketen lanak prestatuko zaizkie.

#### 4. TUTORETZA

Proiektu honek bi tutore izango ditu. Tutore hauen eginkizunak lau ardatzetan banatuko dira:

- a) Asteko tutoretza saioa: talde dinamika, integrazioa, itxaropenak, trebetasun sozialak eta gatazken trataera izango dira ordu horietan landuko dituzten oinarritzko edukiak.
- b) Ikaslearen jarraipen zuzena: astero arduradunek ikasle bakoitzarekin elkarrizketa saio bat izango dute, batetik lan ohituretan hutsune nabarmenak dituztenez, jarraipen estu horren bidez gainditzeko lagunduko dutelako (antolaketa, agenda,...) eta bestetik, harremanetarako arazoak eta arazo pertsonalak bideratzen laguntzeko baliabideak jartzen saiatuko dira.
- c) Proiektuko irakasle taldea: bi arduradunek taldeko irakasle guztiekin bilera bat izango dute jarraipena eta koordinazioa sendotzeko.
- d) Gurasoekin harremanak: Guraso eta tutoreek harreman estua izango dute informazio trukaketa ahal den iraunkorra izateko. Urtean zehar familia bakoitza gutxienez 3 aldiz elkartuko da tutoreekin banakako bilerak egiteko. Ikasturte hasieran taldeko guraso bilerara dei egingo zaie proiektuaren aurkezpena egiteko.

#### 5. INSTITUTUKO BALIABIDEAK

Institutuko curriculum ezberdineko lau irakasleak bi irakasle hauekin harreman estua izango dute orientazio departamenduko kideak izango direlako sei irakasleok.

Orientazio departamentuko beste kideek ere harreman estua izango dute bi irakasle hauekin. Beste institutu eta ikastetxeetan daramaten esperientziak proiektu honetako bi irakasle hauei igorriko dizkie orientatzaileak. Orientazio departamentuko guraso elkarteko psikologoa arazo espezifiko eta gizarte-afektibitatean sor daitezken zailtasunei aurre egiten lagunduko die.

Gaztelania, Gizarte Zientziak, Matematika eta Natur Zientzietako departamentuek 1go zikloko helburuak eta gutxieneko edukiak luzatuko dizkiete bi irakasle hauei.

Berritzeguneko, Udaletxeko eta Aldundiko baliabideak bereganatzeko, orientatzaileak zubi lana egingo du.

## **6. EBALUAZIOA**

Proiektuaren aurkezpenean azaldu dugun bezala, jarraipen zuzenari erabateko garrantzia ematen diogunez, etengabeko ebaluazioa oinarrizko lana izango da.

### **6.1. GELAKO IRAKASLE TALDEA**

- Lehenengo bileran ikasle bakoitzaren abiapuntua eta egoera gehiago zehazteko izango da, eta bere beharrak eta lana erabakiko da.
- Maiatza bitarteko bilerak ebaluazio jarrai bat bezala ulertu behar dira. Esparruetan lanean aritzetik arloetan lana egiteko gutxienekoak lortu dituzten ebaluatuko da; kasu horretan talde arruntera pasatzea baloratuko da.
- Azkeneko bilera ikasturteko ebaluazio orokorra egiteko izango da eta arloetan lana egiteko egoeran dagoen baloratzeko. 3. mailara igarotzeko erabakia ere hor hartuko da.

### **6.2. GURASO ETA IKASLEEI INFORMAZIOA**

Ikasturtean hiru buletin jasoko dituzte guraso eta ikasleek.

Buletinekin batera guraso bilera noiz izango den jakinaraziko da. Behar den kasuetan bilera hauetara ikasleen presentzia ere eskatuko da, informazio eta balorazioa erabatekoa izateko.

### **6.3. IRIZPIDEAK**

- a) Jarrera: lanarekiko jarrera, arreta, ekimena, interesa, partehartzea,...
- b) Eguneroko lanaren ekoizpena (gelakoa eta etxekoa), idei nagusiak atera, eskemak egin, idazlanak,...
- c) Oinarrizko trebetasun instrumentalekin batera ulermenean zailtasunak dituztenez, 2. mailako gutxieneko edukiak lortzeko ahaleginak egingo dira.

### **6.4 PROIEKTUA EBALUATZEKO IRIZPIDEAK**

Orientazio departamentuak galdeketak prestatuko ditu ikasturtean zehar hiru momentutan oinarrizkoak diren lau irizpide hauek baloratzeko:

- a) Gutxieneko lan ohiturak eta edukiak jasotzea 3. mailara igarotzeko.
- b) Beren etorkizuna itxaropenez ikustea.
- c) Autoestimua eta autokontzeptu positiboa izatea.

Erantzunen analisiak egin ondoren, bi irakasleek, orientazio departamentuak eta zuzendaritzak proiektua ebaluatuko dute ikasturteko hiru une horietan.